

MENDIAN GORA

Iraitz Ugalde Picabea, 17 urte

Lezo

Meategitik ateratzen dute harri zuria, harkaitzaren sabeletik, karezko kobazulotik. Harria lantegietara eroaten da kamioi zamalariez. Bidean, kamioitik asfaltora jausten dira harri koxkor zorrotzak, mendiaren odol tantak, mendiaren zauritik jaioak. Eta kamioi horietako batetatik erori den meategiaren semeetako batek jo du zure kaskoa txirrindan zoazela mendian gora. Tok!

Ez zara konturatu.

Mendizale bat agurtu duzu errepide bazterrean behera oinez doana. Bizar zuriaz eta betaurreko borobilekin, gartzetako irakasle baten antza handia duela ohartu zara, eta oroitzapenek haren klaseetako batetara egin dute jauzi:

Lo zaudetenak, segi lotan, eta interesik ez duzuenak lokartu orain... Besteek, utzidazue hiru minutu alferrik galtzen ezinaz hitz giteko. Ezinaz, bai.

Ezina, gure bizitzaren motorra da, etorkizunera iristeko bidea. Ezinak garamatza galbidera, gizaki garen aldetik, dugun gutxiegitasun hau ikusi eta onartzeak. Eta gero, ezin hori asimilatutakoan,

beranduegi da burua altxatzeko, kontrolik ezak, autoritate faltak, inguruak irentsi gaitu hori profitatzen igaro dugun denbora luzean. Beti pentsatu izan dut, pertsonak zein ezgauza den baleki, suizidatu egingo litzatekeela.

Ezin hori da, hala ere, gailurrera igoko gaituena. Horregatik ezin errealitatea onartu egia absolutu gisan. Hobe garena baino gehixeago garela uste izatea, ignorantzia horrek eroango baikaitu gailurrera, arrakastara, non botereak asebeteko gaituen.

Hori da berrogeita hamabi urteren ostean aurkitu dudana egia. Agian zuentzat harrokeria eta esajeraziozko iritzi merkea besterik ez da.

Kontua da, nik ez dudala gailur delako hori sekula nire oinen pean sentitu, baina oraindik ez dut nire buruaz beste egin.

Nola gozaten zenuen klaseko plangintza utzi eta bere teoritxoak kontatzen zizkizuen une horietan. Zenbat leiho zabaltzen zizkizun zuk bertatik salto egin zenezan, eta hausnartu, eta konturatu, eta mundu honetan geroz eta txikiago sentitu...

Segi duzu aurrera, zure buruari sinetsaraziz Markos bera dela kontrako norantzan igaro den mendizalea. Poztu egin zara. Hura bai gizon handia. Hitz egiten zizuen bai, Grezia hartako fenomeno haiez, izen handiko gizon handiez. Izen txiki gizon handia izan zen Markos.

İnigori ez diozu sekula bere eskolarik aipatu. Ez omen zaizkio bizitzari buruzko teoria merkeak gus-tatzen, ez pentsaraziko dioten kontuak. Zu, berriz,

erotzen zaituzte. Eta taberna bat izan nahi zenuke esaldi esanguratsuz betetzeko bertako hormak. Horma beltzak, papertxo zuriz beteak, eta jendea besaulkietan, mahai biribilen inguruan, eta jazz apur bat ez oso ozenki, eta bluse pixka bat astearte arratsetan –astearteei deprimenteak direla onartu behar zaiela irizten duzulako–... Baina ez duzu halako lokalik. Eta horregatik ez diozu ideia horri pedalkada gehiagorik eskaini.

Estudioak! Tabernariak ez du estudiorik. Tabernariak edalontziak garbitzen daki, eta kubatak maisuki prestatzen. Bai, zera! Zenbat eta zenbat barra atze izan ote diren fenomenoren baten habia.

Baina zuk bulego propioa duzu. Zuk mahai gain bat duzu, paper garrantzitsuzko mendiz betea. Eskaerak egin behar dituzu, enpresaren funtzionamendurako beharrezkoak. Eta fakturak, eta albaranak, aurrekontuak...

Iñigok hori ere ez daki. Ez duzu uste paper arteko errobot baten eguneroko lana interesatuko zaionik. Etxeratutakoan ez duzu, bada, lanaz hitz egingo egun osoa horretan eman ondoren... Afari azkarra egin eta sofara jausten zarete gauero, nekearen seme. Gorbata lasaitzen duzu badakizu eta zure trajedun piura atsegin duela. Eta batzuetan piztu egiten da eta besteetan ez. Batzuetan begiratzten dizu telebistari so egin ordez, eta besteetan irudizko kutxaren imnosi gogorrenak harrapatzen du. Estu heldu duzu manilarra gorbata askatzen duzunean so egiten dizun une horietako bat gogo-

ra ekarriz. Erakargarri sentitzen zara eta berak erakargarri aurkitzen zaitu. Hasperen isila egin duzu, oso adi begira dagoen norbaitek soilik hautemateko modukoa. Bera ohartu da. Alertan dago, adi. Ez du irri egiten. Badakizu berotzen adi dela. Konexio berezi horrek berotzen zaitu zu ere, gonbita mutu hori berari iristeak. Harrapakinaren zain dagoen pantera dirudi, seinalearen zain dago zure gainera salto egiteko. Orduan eman diozu semaforo berdea, eskuaz ilea atzerantz orraztu duzunean axolagabe. Ia agresiboki, baina goxotasun handiz etzan zaitu sofán eta etzan da zure gainean. Irri egin duzue biek harrapakinak eta harrapariak. Gonbidapen mutuak ekarri du begiraden arteko elkarrizketa, eta hitzak soberan daude. Oso azkar doaz segundoak sukaldeko erlojuan. Baina tik-tak hotsa ez da egongelaraino heltzen eta zuentzat geldirik dago denbora. Bertan biluztu zaitu, *teleberriko* neska begira duzuela. Ez duzu argirik itzali. Badakizu haragizko eszena hori maite duela. Dastatu duzu bere mihia, bere azalaren zapore epela. Sentitu dituzu bere sabeleko ileak zure larruari kili-kiliak egiten, bere eskuak zure besotan bidaiatzen, zure izterretan, zure ipurdian, bizkarrean, bularrean, sabelean... Arnasestuak geroz eta ozenagoak dira zure belarri ondoan. Ezpainez lepoa ukitzen dizu, musurik eman gabe, ukitu besterik ez. Eta barruan sentitu duzu orduan, zure barruan. Bien azalak elkar igurtzi dute. Zirrara. Ez dakizu non dabilzan zure eskuak. Kontrola galdu duzu. Ez dituzu aurkitzen. Ez dituzu aurkitu nahi.

Hegan zabilta urruneko galaxiaren batean, eta eguzki handiegi bat du, bero handiegia jariatzen duena. Izerdia. Mihiak ere bere bidea hartu du, bizi propioa. Eta sofa ere mugitzen ari dela dirudi, bien dantzak etxe osoa dardaran jarriko balu bezala. Lurrikara ttipia sumatu da, handia oso zure barruan. Bidaiak luze jo du eta intziri batez itzali duzu galaxia hartako eguzki beroegi hura. Eta argia galtzen doa, mantso-mantso. Inigoren gainean jausten utzi duzu zure gorputza. Loak hartu zaituzte biak.

Gurpilek biraka dihardute, ia ahantzi zaizu pedalei eragiten jarraitzea eta eroan zaitu kasik aldapak nahi izan duen lekura. Baina ez, borrokan segi duzu, pentsamendu eztegiak atzean utziz, menda-tearen aurka.

Matrikula horidun auto batek aurreratu zaitu, frantsesa. 134 eta letra eta zenbakiren bat gehiago. Ez zara kontziente Frantziatik horren gertu bizi zarenik, erreak *erre* diren eta katuei *chat* esaten zaien herrialde horretatik. Europa. Txikitan erregalatu zizuten mundu bola etorri zaizu gogora, zoratu zintuen oparia hamargarren urtemuga hartan. Munduaren jabe zinela uste izan zenuen, gero mundua bera zure jabe izatera iritsi den arren. Egun, depresioa iruditzen zaizu mundu minimizatu hari gizaki erraldoi baten moduan hatz lodikotea gainean ipintzen zenioneko garaia, Panama edo Kurdistan edo Filipinetako irletako bat zapalduz. Izan ere, gezurrezko botere sentipena, posesioa eta erabat irrealista zen hura sabelean suma-

tzen zenuen, eta tristatu egiten zaitu orain inozenteegia eta sinpleegia zinela, zarela pentsatzeak.

Arrosaz pintatu zuen Grezia mundu bola hura egin zuenak. Makina batek ziurrenik, beste hamar bat mila bolarekin batera. Baina ez diozu sekula zure buruari halakorik gogorarazten, krudelegia litzateke hori esatea izan zinen ume harentzat. Horregatik pentsatu nahi izaten duzu oraindik ere, *Jepetoren* batek lumaz idatziko zituela bola hartako izenak eta pintzelaz eman ziela kolore ezberdina herrialde gutiei. Grezia arrosa. Gerora filosofiaren habia izan zela deskubritu zenuen Grezia hain arrosa. Umetatik piztu izan dizu arreta. Egia esan ez duzu oroitzen hasieran zergatik gustatzen zitzaizun. Hamalau bat urterekin, inork sekula zenbatu ez zituen milaka irlatxo zituelako interesatzen zitzaizun. Mediterraneoak gatibu zuen arren, indefinitutasun horrek ezezagun eta ezagutezin bilakatzen zuelako, aske. Beranduago, institutuan filosofiaren amaraunean eulitxo bat bezala harrapatuta geratu zinean, izen handidun gizon handien ama zen Grezia handira bidaiatzeko gogoa bikoiztu zen zure barnean. Gizondu zinenerako alde egin zizuten txoriek burutik. Hamasei urte zenitueneko amets ametsegiak oroitzapen bilakatu ziren. Eta oraindik ere, barre txikia irteten zaizu ezpain ertzetik Grezian biziko zinela esaten zenuen garaiak oroitzean, neskato eder batekin zoriontsu izanen zinela. Konturatu zara zure Grezia hura mendebalde xamarrean geratu dela, zure greziar neskato ederra Iñigo dela, eta zoriona... zorionak noizean behin egiten dizula bisita.

Berriro etorri zaizu gorbata lasaitzen duzulako eszena gogora. Eta Iñigoren so zeharkakoa, hainbeste desiratzen zaituen begirada ere ez den begirada hori. Orduan egiten dizu bisita zorionak. Baina oso gutxitan sortzen da begirada gosetia Iñigoren ninietan. Orain gehiagotan imnotizatzen du telebistak zure insinuiazioek baino.

Bihurgunea ezkerrera, ez da inor ageri mendi aldean, zuretzat dira belardiak, gailurrak, zokoak, harkaitzak eta han goitik ikusiko duzun itsasoa ere bai.

Iñigok badaki aisa samurtzen zaituztela izarek. Honezkero ohartu dela uste duzu behintzat. Izan ere, loak hartu aurretik, hitz eztiak uzten dizkiozu belarri ondoan bere belarriak jaso ditzan. Ahots xuxurlariaren laztanak. Finean bere ahotsa entzuteko eskea besterik ez da, gauak are sentsualago bilakatzen duen ahots apal horren ferekak sentitzeko nahia. Azken aldian ordea, musu isiltzaileak baino ez dituzu jasotzen, pasioaren soinekoaz jantzitako musu alferrak, hitz egin nahi ez duen aho alferraren konplize. Bart esan diozu: Utzi musu emateari, esan maite nauzula... Ahotsak leun egin du zure ezpainetatik bere belarrietarako bidaia. Zuk ere entzun dituzu zure hitz propioak eta inoizko poemarik ederrena iruditu zaizu. Baina Iñigo haserretu egin da. Hitzez zauritu zaitu. Isiltasunaren armonia apurtu du eta negargura sentitu duzu izara artean. Negargura baita ere txirrindaren gainean. Pedalei gogor eragiten diharduzu, amorruz, batzuetan hitz goxoek momentuak haus-

ten dituztelako, batzuetan ez delako nahikoa bi pertsonak elkar maitatzea zoriontsu izateko. Eta gogoratu dituzu azkenaldian Iñigo limurtzeko egin dituzun saiakera antzuak, galtzaileak. Gogora eka-
rri dituzu, baita ere, izara artean korapilatu ordez, elkarri bizkarra emanda lotan igaro dituzuen gauak. Eta laster konturatu zara noiztik ez zaion marraztu hasiera batean marrazten zitzaien bezalako irribarrea aurpegian zu ikusitakoan.

Gaztea zineneko garaia gorrotatu duzu une batez. Bulegoaren errutinara kondenatu izan ez bazenu zeure burua, zoriona gertuago izango zenukeelakoan zaude. Baina, aukera bat egin beharra dago, eta suposatu duzu garai hartako *zu* hark ez duela erru handiegirik, beti daudela gale-
rak eta irabaziak aukera baten ondoren. Lanpostuaren alde egin zenuen, errealista eta praktikoa izan zinen izaera erromantikoa atzean utziz. Horregatik filosofia ahantzi eta enpresen munduan sartu zinen. Orain, garai hartan umeegia zinela uste duzu, ez zenuela adorerik izan aitaren nahien gainetik zureak ipintzeko. Gerora ohartu zinen aitaren hitza ez zela egia bakarra, bazegoela egia piloa inguruan, pertsona bakoitzak zuela bere egia eta zeuk ere zeurea izateko eskubidea zenuela aitaren gonapetik kanpo. Baina hori beranduago lortu zenuen, beranduegi. Ez zen erraza izan.

Oso atzean ikusi duzu orain arte gurasoekin izandako sesioa, gizartearen hormak inexistente-
tzat joz Iñigo maite zenuela etxean aitortu zenuen eguna. Adoretu zinela sinetsarazi zenion zeure

buruari, Markosek esan izan zizun bezala. Horrek eman zizun egoerari aurre egiteko indarra. Geroztik Iñigoren eskuak sekula askatuko ez zintuen sentipena izan duzu. Baina gaur, mendi honen asfaltotan, bihurgunez bihurgune, buelta bat gehiago eman diozu bere sentimenduen nondik norakoei.

Behor arre batek itxi dizu bidea. Ez du mugitze-ko bat ere intentziorik eta frenoeri gogor eman ostean, oina lurrean jarri eta parean geratu zara. Animaliairen tripa puztuak esan dizu zelulen arteko ugalketa anitzaz moxal bat sortzen ari dela bertan. Behorra gaztea dela iruditu zaizu. Egia esan, ez duzu ideiarik animalien gartzetasunaz, baina, konbentzimenduz irudikatu duzu amatxo gazte bat ile luzedun animaliairen tokian. Iñigo ezagutu izan ez bazenu, agian, neskato baten tripa borobila igurzten ariko zinen etxeko besaulkian une hone-tantxe. Eta neska beltzaran baten irudia etorri zaizu burura. Biluzik dago sofa gainean, zuri begi-ra. Eskua heldu dizu eta bere sabelean jarri. “Sumatzen dituzu kolpetxoak? Begira orain...” Ederra da biziaren legea. Zuk ere puztu zenuen amaren sabela, bere garaian, oroitzen ez baduzu ere. Gustatu zaizu neskaren sabel biribila, leuna. Lotsatu egin zara bere larru biluziaren aurrean. Pentsamenduak apur bat behartuz, neska irudika-tzeari utzi diozu. Behorrak mantso egin du errepi-de bazterrerako bidea eta asfaltotan jaiotako belar apurra jateari ekin dio. Zuk pedalei eragin diezu berriro. Hasieran zutik, eserita gero.

Iñigori ez zaizkio animaliak gustatzen. Alergia diela esaten du, beldurra diela irizten duzu, baina, egiazki, ez zaizkio gustatzen, besterik gabe. Hurrengo asteburuan Madrilen duen bilera gogoratu duzu. Ilea gorantz orraztuta eta alkondara marradunarekin hegazkina hartuko du inoren begiradarik erakarri gabe. Zuk aireportura lagunduko diozu autoan eta kristalaz bestaldera agur egin, begiraten badu. Bestela kafetegira joango zara zuzenean, eta gabetsiko zaituela sinetsaraziko diozu zure buruari, hiru egun zu barik egon ostean, beste ezer ez duela buruan izango zu besarkatzea baino. Obsesio puntu bat sumatu nahiko zenuke beragan, zuganako dependentziaren zantzen bat egunerokoari zentzua emateko. Baina, ez duzu halakorik sumatu oraino. Nekagarria iruditatu zaizu biren artean sortu beharreko goxotasuna zuk soilik eraikitzea. Hain erraza egiten zaio berari, hain zauzka aseguratuta...

Eroso zoaz maldan behera. Ez diezu pedalei eragin beharrik. Iñigorentzat ere oso eroso da ezer ez egitea. Eta, horregatik doa zuen harremana zulora, batek ezin baitu biren papera ondo bete. Ederra litzateke aldapan gorako harreman bat. Zaila, neketsua, baina, asebeteko zintuzkeena. Gauzak zaildu beharko dizkiozula pentsatu duzu, ea pedalei eragiten hasten den.

Zelaiak, orlegi, atzean geratzen doaz. Atsegin duzu bizikletan ibiltzea, pedalei eragiteak buruari eragitea baitakar ezinbestean. Baina, txirrindatik jaitxitakoan ekintzek dute indarra. Eta ez dakizu

gai izango zaren Iñigorekin zure asmoak aurrera eroateko. Uste baino menderago ote zauzkan galdetu diozu zeure buruari. Agian gaur goxoago jai-kiko da. Agian ohean dago oraindik eta musu batez esnatzen duzunean bere goxotasunera sartzeko gonbita egingen dizu. Agian gaur zure insinuazioek erantzuna jasoko dute. Edo agian denak bere horretan darrai.

Agian ez zenuke bizikletan hainbestetan ibili behar.

Mendian gora dator kamioia, haitzulo zurietako odol tanta zuri gehiagoren bila berriro. Berdinberdin, ordu batzuk lehenago jaitsi den bezalaxe, gora.